

URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA
AMURRIOKO UDALAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA,
“AMURRIOKO UDALERRIAN (ARABA)
ARMURU ERREKA
LEHENERATZEKO” LANAK EGITEKO

CONVENIO DE COLABORACION ENTRE
LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL
AYUNTAMIENTO DE AMURRIO PARA LA
EJECUCIÓN DE LAS OBRAS
CORRESPONDIENTES A LA
“RESTAURACIÓN DEL ARROYO
ARMURU EN EL TÉRMINO MUNICIPAL
DE AMURRIO (ÁLAVA)”

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 3a.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2023.

BILDU DIRA

SE REUNEN



Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi
Antonio Aiz Salazar jauna eta Amurrioko
Alkate Udaburua José Ramón Molinuevo
Laña jauna.

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director
General de Agencia Vasca del Agua y el Sr.
D. José Ramón Molinuevo Laña, Alcalde-
presidente del Ayuntamiento de Amurrio.

ESKU HARTU DUTE

INTERVIENEN



Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren
zuzendari den aldetik eta Agentziaren
Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion
eskumenak betez.

El primero, en su calidad de Director
General de la Agencia Vasca del Agua y en
virtud de la atribución que le confiere el
artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa,
Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen
apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua
ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

El segundo, en ejercicio de la capacidad
legal de representación del Ayuntamiento
que le confiere el artículo 21 de la Ley

7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Bi aldeek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, horretarako

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, y a tal efecto

HONAKOA AZALTZEN DUTE

EXPONEN



LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen eskusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorrekoat jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAera eskualdatu ziren, bestiak

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al

beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez dionean eta legez Estatuaren interes orokorrekoatzat jotzen ez direnean.

otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

BIGARRENA.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legearen bidez Uraren Euskal Agentzia sortu zen ingurumenaren arloan eskumena duen Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa. Agentzia horren helburua Euskadin uraren politika gauzatzea da eta, besteak beste, Estatuko Administrazioak eskualdatutako, eskuordetutako edo agindutako eginkizunak betetzea dagokio.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua como ente público de Derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

HIRUGARRENA.- Amurrión, 247,06 metroko luzera duen Armuru erreka zati bat dagoela, Lexarraga eta Etxegoien kaleen artean, Federico Barrenengoa kalearen azpiko pasabidea eta tartea lurperatzen hastea lotzen dituen galeria zaharra igarotzen den larreen artean, Amurrioko Ikastolaren inguruan. Egungo galeria 1,80 metroko altuera eta 1,10 metroko gehieneko zabalera duen oboide batek osatzen du, eta batzuetan lursailaren sestraren gainetik igarotzen da.

TERCERO.- Que en Amurrio existe un tramo del arroyo Armuru, de 247,06 m de longitud, entre las calles Lexarraga y Etxegoien, entre los pastizales bajo los que circula la antigua galería que une el paso bajo la calle Federico Barrenengoa con el inicio del soterramiento del tramo, en las inmediaciones de la Ikastola de Amurrio. La galería actual está formada por un ovoide de 1,80 metros de altura y 1,10 metros de anchura máxima, que en ocasiones circula parcialmente sobre la rasante del terreno.

Armururen berezko emariaz gain, oboide horretatik igarotzen dira bere ibilbidearen ondoan dauden familia bakarreko etxebizitzetako harguneetatik datozen hondakin-urak.

LAUGARRENA.- Amurrioko Udalak saneamendu-proiektu bat duela isurketa horiek biltzeko eta udal-sarera eramateko. Era berean, jarduketa honek aukera ematen du oinezkoentzako eta bizikletentzako sarbidea zabaltzeko erreka horren eskuinaldetik.

BOSGARRENA.- Errekaren 247 metroko tarte bat leheneratzeko eta berreskuratzeko asmoarekin, Uraren Euskal Agentziak eta Amurrioko Udalak administrazio bakoitzari dagozkion lanak koordinatu dituzte, bi proiekturen bidez: "AMURRIOKO ARMURU ERREKA LEHENERATZEKO PROIEKTUA" eta "AMURRIOKO ARMURU ERREKAREN ONDOKO UR BELTZEN ETA BIDEGORRIAREN KOLEKTOREA GAUZATZEKO PROIEKTUA".

Horrenbestez, Uraren Euskal Agentziak eta Amurrioko Udalak LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

Además del caudal propio del Armuru, por este ovoide circulan las aguas residuales procedentes de las acometidas de las viviendas unifamiliares situadas junto a su trayectoria.

CUARTO.- Que el Ayuntamiento de Amurrio dispone de un proyecto de saneamiento que recoge dichos vertidos para llevarlos hasta la red municipal. Asimismo, esta actuación da la oportunidad de ampliar el acceso peatonal y ciclable por la margen derecha de dicho arroyo.

QUINTO.- Con el objeto de restaurar y recuperar un tramo de 247 metros de arroyo, la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Amurrio han coordinado los trabajos que a cada administración corresponde, a través dos proyectos: "PROYECTO DE RESTAURACIÓN DEL ARROYO ARMURU EN AMURRIO" y "PROYECTO DE EJECUCIÓN DE COLECTOR DE FECALES Y BIDEGORRI JUNTO ARROYO ARMURU EN AMURRIO".

Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, y el Ayuntamiento de Amurrio proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal Agentziak eta Amurrioko Udalak bigarren klausulan jasotako jarduerak finantzatzeko eta gauzatzeko elkarlanean nola jardungo duten arautzea.



BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.



Egin beharreko jarduketak honako proiektu hauetan aurreikusitakoak dira: "AMURRION ARMURU ERREKA LEHENERATZEKO PROIEKTUA" eta "AMURRION UR BELTZEN HODI BILTZAILEA ETA BIDEGORRIA EGITEKO PROIEKTUA".

Jarduera horien helburuak Uraren Euskal Agentziak lortu nahi dituenak dira, plangintza hidrologikoko dokumentuetan ere jasota dagoen bezala, hau da, egungo egoera lehengoratzeari lurrizaleko ur-masak berreskuratu eta leheneratzeko, isurketak ezabatzeko eta ur-masa horien egoera ekologikoa hobetzeko.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.

El objeto es regular los términos en los que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Amurrio colaborarán en la ejecución de las actuaciones recogidas en la cláusula segunda.

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

Las actuaciones a ejecutar son las previstas en los siguientes proyectos: "PROYECTO DE RESTAURACIÓN DEL ARROYO ARMURU EN AMURRIO" y "PROYECTO DE EJECUCIÓN DE COLECTOR DE FECAL Y BIDEGORRI JUNTO ARROYO ARMURU EN AMURRIO".

Dichas actuaciones tienen como objetivos los que persigue la Agencia Vasca del Agua, tal y como también está plasmado en los documentos de planificación hidrológica, es decir, revertir la situación actual para avanzar hacia la recuperación y restauración de las masas de agua superficiales, así como eliminar vertidos y

mejorar el estado ecológico de dichas masas de agua.

Proiektatutako obren aurrekontua, guztira, ZAZPIEHUN MILA EUROKOA (700.000,00 €) da, BEZa barne.

El presupuesto de las obras proyectadas asciende a un total de SETECIENTOS MIL EUROS (700.000,00 €), IVA incluido.

HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAK KONPROMISOAK.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) "AMURRION ARMURU ERREKA LEHENERATZEKO PROIEKTU"rako obrak kontratatzea.

b) Aipatutako obrak zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea.

c) Leheneratze-proiektua horretan sartutako obren kontratazioaren benetako kostua finantzatzea eta ordaintzea. Uraren Euskal Agentziak HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EUROKO (350.000,00 €) ekarpena egiteko konpromisoa hartzen du, BEZa barne. Zenbateko hori 2023ko ordainketa-konpromisoari dagokio. Hori guztia Agentziaren 23191115 kontuari egotziko zaio.

TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Contratar las obras incluidas en el proyecto de "RESTAURACIÓN DEL ARROYO ARMURU EN EL TM DE AMURRIO (ÁLAVA)".

b) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

c) Financiar y abonar el coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en dicho proyecto de restauración. El importe previsto como aportación máxima que compromete a la Agencia Vasca del Agua asciende a TRESCIENTOS CINCUENTA MIL EUROS (350.000,00 €) IVA incluido, que corresponden a un compromiso de pago para 2023. Todo ello se imputará a la cuenta 23191115 de la Agencia.

**LAUGARRENA.- AMURRIOKO
UDALAREN KONPROMISOAK.**

Amurrioko Udalak konpromiso hauek hartu ditu:

a) "AMURRION UR BELTZEN HODI BILTZAILEA ETA BIDEGORRIA EGITEKO PROIEKTU"rako obrak kontratatzea.

b) Aipatutako obrak zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea.

c) Uraren Euskal Agentziak eta Udalak berak proiektatutako obrek eragindako lurrak lortzea, eta Agentziaren esku jartzea bere proiektua gauzatzeko beharrezkoak direnak.

d) Saneamendu eta bidegorriaren proiektuan sartutako obrak kontratatzeko benetako kostua finantzatu eta ordaintzea. Amurrioko Udalak HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (350.000,00 €) jarriko ditu, BEZa barne.

**CUARTA.- COMPROMISOS DEL
AYUNTAMIENTO DE AMURRIO.**

Los compromisos que adquiere el Ayuntamiento de Amurrio son los siguientes:

a) Contratar las obras incluidas en el "PROYECTO DE EJECUCIÓN DE COLECTOR DE FECALES Y BIDEGORRI JUNTO ARROYO ARMURU EN AMURRIO".

b) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

c) Obtener aquellos terrenos que resulten afectados por las obras proyectadas tanto por la Agencia Vasca del Agua como por el propio Ayuntamiento, y poner a disposición de la Agencia los que sean precisos para la ejecución de su proyecto.

d) Financiar y abonar el coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en el proyecto de saneamiento y bidegorri. El importe previsto como aportación máxima que compromete el Ayuntamiento de Amurrio asciende a TRESCIENTOS CINCUENTA MIL EUROS (350.000,00 €) IVA incluido.

e) Kolektore osoaren obrak bi fasetan egitea aurreikusten denez, Amurrioko Udalak konpromisoa hartu du udaleko saneamendu-sarerako konexioa gehienez ere bi (2) urteko epean osatzeko.

f) Uraren Euskal Agentziaren aldetik "AMURRION ARMURU ERREKA LEHENERATZEKO PROIEKTUA"ri dagozkion obrak jasotzea behin hauek bukatuta eta harengandik hartuta. Obra horiek udalaren jabetzakoak izango dira, eta udalak horiek kudeatu eta mantendu beharko ditu. Horretarako, aurrekontu-aurreikuspenak egiteko eta beharrezkoak diren gainerako neurriak hartzeko konpromisoa hartuko du udalak.

g) Entregatzen diren obrek ura husteko duten gaitasunari eusteko egokiak diren mantentze- eta garbiketa-lanak aldiari behin egitea.

BOSGARRENA.- OBRAK KONTRATATU, ZUZENDU ETA IKUSKATZEA.

1.- Uraren Euskal Agentziak, hitzarmen honen 3.a) klausularen arabera, bere gain hartzen du hitzarmenaren xede diren "AMURRION ARMURU ERREKA LEHENERATZEKO PROIEKTUA"ri

e) Dado que las obras del colector completo se prevén ejecutar en dos fases, el Ayuntamiento de Amurrio se compromete a completar la conexión hasta la red de saneamiento municipal en un plazo máximo de dos (2) años.

f) Recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras correspondientes al proyecto "RESTAURACIÓN DEL ARROYO ARMURU EN EL TM DE AMURRIO (ARABA)" una vez terminadas y recepcionadas por ella, obras que quedarán en propiedad municipal, obligándose el Ayuntamiento a su gestión y mantenimiento adecuados, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

g) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las obras que se entregan.

QUINTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN, INSPECCIÓN Y EXPLOTACIÓN DE LAS OBRAS.

1.- La Agencia Vasca del Agua, conforme a la cláusula 3.a) del presente convenio, se hace cargo de la contratación de las obras correspondientes al proyecto "RESTAURACIÓN DEL ARROYO

dagozkion obren kontratazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplikatu beharreko kontratazio-araubidearen arabera.

2.- Agentziak izango du gauzatu beharreko lan horiek zuzentzeko eta teknikoki ikuskatzeko ardura. Gainera, ziurtagiriak onartzea dagokio.

3.- Agentziak obra horiek jaso ondoren, Amurrioko Udalaren esku jarriko ditu, hark kontserbatu eta manten ditzan, laugarren f) klausulan adierazitakoaren arabera.



Obrak udalaren esku uzteko eta udalak behar bezala zaindu eta ustiatuko dituela hitz emateko akta bat egingo da.



4.- Hitzarmena gauzatu bitartean, Uraren Euskal Agentziak ez du inolako konpromisorik edo erantzukizunik hartuko bere gain Amurrioko Udalari dagokion hondakin-urak saneatzeko eta arazteko betebeharrari dagokionez.

5.- Alderdi bakoitzak bere gain hartuko ditu, obra gauzatzeko bere proiektuari dagokionez, esleipen-prezioan eragin ekonomikoa izan dezaketen kontratugorabeherak (hala nola gehiegizko

ARMURU EN EL TM DE AMURRIO (Álava)” según el régimen de contratación aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Corresponderá a la Agencia la dirección e inspección técnica de dichas obras a ejecutar. Además, le corresponderá la aprobación de las certificaciones.

3.- Recepcionadas esas obras por la Agencia, ésta las pondrá a disposición del Ayuntamiento de Amurrio para su posterior conservación y mantenimiento por aquél, conforme a lo indicado en la cláusula cuarta f).

La transmisión de la posesión de las obras al Ayuntamiento, así como su compromiso de adecuada conservación, se articularán mediante un acta.

4.- Durante la ejecución del convenio, la Agencia Vasca del Agua no asume compromiso ni responsabilidad alguna en cuanto a la obligación de saneamiento y depuración de aguas residuales que compete al Ayuntamiento de Amurrio.

5.- Cada una de las partes asumirá en relación con su propio proyecto de ejecución de obra las posibles incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como

likidazioa, prezioen berrikuspena, zergatasen aldaketa, etab.), bai eta obra-aldaketak eta obra osagarriak edo osagarriak ere.

exceso en liquidación, revisiones de precios, modificación de tipos impositivos etc...), así como los modificados de obra y las obras accesorias o complementarias.

SEIGARRENA.- JARDUNEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

1.- Hitzarmen honen jarraipen-batzorde bat eratuko da, esku hartzen duen administrazio bakoitzeko bi ordezkari osatua. Alderdi sinatzaileek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, honako eginkizun hauek betetzeko:



a) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala burutzen ari direla egiaztatzeko jarraipena egitea, eta, horretarako, bi erakundeek bata bestearen informazioa izan dezaten eta elkarrenganako konpromisoak behar bezala bete ditzaten irizpide eta moduak ezartzea.

b) Lan bakoitzerako behar diren izapideak agudo egiteko oztopoak kentzen saiatzea.

c) Hitzarmen honen gai diren jardunak burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitu beharreko kasuetan.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por dos representantes de cada administración interviniente, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades.

d) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretatzeko eta burutzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quorum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

SÉPTIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzahitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el

jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, 40/2015 legea bete beharko da.

presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatik erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta ordutik aurrera behartuko ditu parte-hartzaileak, eta hura egikaritzeko jardunaren kontratazioa likidatu eta ordaindu arte iraungo du, lau urteko hasierako mugarekin; epe hori luzatu ahal izango da, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

OCTAVA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación y pago de la contratación de la actuación para su ejecución, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

NOVENA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.


2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

Y en prueba de conformidad suscriben las partes, por duplicado, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
ZUZENDARI NAGUSIA / EL DIRECTOR
GENERAL DE LA AGENCIA VASCA
DEL AGUA**



ANTONIO AIZ SALAZAR

**AMURRIOKO ALKATE UDALBURUA / EL
ALCALDE PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE AMURRIO**



JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA